

Zer hipotesi nagusitu da?



Perpauza + hipotesia

- ☀ Sendotuz doa klima aldatzen ari delako hipotesia.
- ☀ Biztanle kopurua linealki aldatu delako hipotesia aplikatu dugu.
- ☀ Argia osatzen duten bibrazioak izpien norabidean hedatzen zirelako hipotesia plazaratu zuen Hookek bere garaian.

EHULKUren aholkua:

“...*deN hipotesia*” zuzena da, baina nahasgarri gerta daiteke zenbait testuingurutan.




Okerrak dira

- * Biztanle kopurua linealki aldatu DELAREN hipotesia aplikatu dugu.
- * Biztanle kopurua linealki aldatu DENAREN hipotesia aplikatu dugu.
- * Biztanle kopurua linealki aldatu DENEKO hipotesia aplikatu dugu.



Beste izen batzuekin

- ☀ Atal guzti-guztien lankidetzaren behar **delako ideia** sustatu beharra dago.
- ☀ Azal-sakonen artean bereizketa erabatekorik egiterik ez **dagoelako froga/ebidentzia** hauxe da: azalekoak eragin dio sakonekoari.
- ☀ Denek mahai baten inguruan bildu behar **dutelako ondorioa** atera dute, azkenik.



Beste izen batzuekin

- ☀ Ahozkoatasuna lant/landu **daitekeelako irakaspena** atera dute jaldunaldietara bildutakoek.
- ☀ NBEko idazkari nagusiak gaitzetsi egin du Bush terrorismoaren aurka ari **delako doktrina**.

